**8. FUNTSEZKO BALIABIDEAK**

Gure proiektua martxan jartzeko, App Inventor erabiliko dugu, aplikazioak sortzeko webgune bat. 3. puntuan azaldutakoari jarraituz eta informatikariaren laguntzarekin sortzen eta garatzen joango gara aplikazioa.

Proiektua bera funtzionatzeko elementu batzuk behar izango ditugu. Alde batetik estankoak, aplikazioa erabili ahal izateko hemen eskuratu ahal izango dituzu txartelak. Baina lehenengoz, estankoetara heldu ditzaten txartelak Correos erabiliko dugu, esan bezala estankoetara heltzeko eta beste hainbat lekutara ere. Ikastetxeetako liburutegietara, herrietako liburutegietara, liburudendetara...

Diru-sarrerak lortzeko lehenengoz inbertsioa egingo dugu, aurretik azaldutakoa betetzeko, eta ondoren, hilabeteak pasa ahala, gure aplikazioa ezaguna bihurtzen den bitartean, irabaziak lortzen joango gara. Horrela, gure produktua finantzatuko dugu eta diru hori egindako inbertsioa eta hilabeteko kostuak (10. puntuan ikus ditzatekeenak) estaliko ditugu.

